

2010 MEMORIA

10M

EUSK

bbk⁼



Euskal Gorrak

Pertsona Gorren Elkarten
Euskal Federazioa

1. PRESIDENTEAREN DIOSALA

Lagun agurgarriak:

Urtero legez, beste behin ere, Euskal Gorrakek 2010ean zehar burututako jardueren txostena dakarkizuegu. Aurtengoa, Euskadiko Gorren Komunitatearentzako ekintza garrantzitsuz betetako ekitaldia izan da, gure federazioaren 30. Urteurrenaren ospakizunak borobildu duena.

Bizi dugun egoera ekonomikoa latza izan arren, 2010. urtean zehar Euskal Gorrakek, pertsona gorrentzat funtsezkoak diren eta balio estrategiko nabaria duten zerbitzuak sendotzea lortu du. Hala nola, Zeinu Hizkuntzako Interprete Zerbitzua, Abian Zerbitzua (Enplegua eta Prestakuntza) eta bestelako egitasmo garrantzitsuak ere: Sentsibilizazioa hezkuntza arloan, Eutsi (Elkartegintza sustatzeko egitasmoa) eta Zeinu Telebista.

Ekitaldien antolaketari dagokionez, 2010. urtea erabat berezia izan da. Ohikoak diren jardunaldiez gain, Emakumeena zein Familiena esaterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Pertsona Gorren Elkartegintzaren Jardunaldia lehen aldiz burutu dugu, federazioaren 30. Urteurrenaren ospakizunarekin bat eginez. Aipatzekoa da ere Fevapas federazioarekin batera antolatu genuen Pertsona Gorren Munduko Eguna.

Zalantza izpirik gabe, 2010 Euskal Gorraken urterik biziena izan da bere jardunari begira. Alde batetik, eskaintako zerbitzuak areagotu eta indartzeagatik eta, bestetik, elkartegintza sustatzera zein pertsona gorren bizi kalitatea hobetzera zuzendutako ekitaldiak ere bikoiztu ditugulako.

Azkenik, azpimarratu nahiko nuke, txosten honetan aurkezten ditugun egitasmo guztiak ez lirakeela posible izango, Euskal Gorrak osatzen duten gizon eta emakumeen borondate eta elkartasun lanaz baliatu izan ez bagina. Eskerrik asko urte honetan zehar lagun izan zaituztegunoi eta gizarte berdintsuagoa eta parte hartzaileagoa eraikitzeko borrokan gure aldamenean egon zaretenoi.

Agur bero bat guztioi,

Álvaro Ortega Abajas,
Euskal Gorren Presidentea



2. NORTZUK GARA

Euskal Gorrak EAEko Gor helduen Elkarte guztien **koordinatzaile eta ordezkari** moduan jokatzeko ardura duen irabazi asmorik gabeko **erakundea** da. EAEko lurralde ezberdinetan ematen diren baldintza desberdinak kontutan harturik, Federazioaren egiturak eta funtzionamendu-ereduak, desoreka-arazo horri erantzun nahi dio, lekuan lekuko elkarteen garapen desorekatua murriztu eta saihestuz, lurralde ezberdinetan **egoera-parekotasuna** sustatzeko asmoz. Azken xedea, pertsona gorrek euskal lurralde osoan **oinarrizko zerbitzu**etarako **sarbidea** ziurtatuta izatea da.

GURE EGITEKOA

Euskal Gorraken **egitekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Pertsona Gorrek euren bizitzaren eremu guztietan aukera berdintasuna izan dezaten eta gizartearen erabateko parte-hartzea gauzatu dezaten lortzea da.

GURE XEDEA


Euskal Autonomia Erkidegoan honako alderdi hauetan eredu edo ardatza izatea:

- › Euskadiko pertsona gor guztien interesak ordezkapena.
- › Euskadiko Pertsona Gor helduenganako kalitatezko arreta-zerbitzuen eskaintza.
- › Komunikazio Oztopoen desagerpena eta Zeinu Hizkuntzaren defentsa eta babesa.

GURE BALOREAK

- › Gorren Kultura eta Komunitatearen sentipen eta babesa
- › Gardentasun informatiboa: kide diren Elkarteen zein Federazioaren lantaldearen arteko erabateko informazio trukaketa.
- › Talde-lana.
- › Genero-berdintasunaren sustapena.
- › Parte hartze demokratikoa: Federazioaren esku hartze eta funtzionamendu-egitasmo eta funtzionamenduari dagozkion erabakiak Biltzar Nagusiak hartzen ditu.
- › Sendotasuna lortzeko, batasuna ardatz: kide diren Elkarte zein ezgaitasunaren arloko elkarte-mugimenduarekiko harreman eta lankidetzeta, informazio trukaketarako eta ekintzak elkarrekin gauzatzeko.
- › Autonomila: berariazko izaera juridikoa eta jokatzeko erabateko askatasun eta gaitasuna.
- › Pertsona Gor eta Entzuleen arteko eskubide berdintasuna.
- › Ingurugiroarekiko errespetua.
- › Euskararen sustapena.

3. ORGANIGRAMA ETA GIDARITZA ORGANOK



4. EGOITZAK

EGOITZA NAGUSIA

Hurtado de Amézaga k. 27, 9. pisua.
Departamentuak: 4, 5 eta 6
48008 Bilbao

* Lokal biak alokairuan ditugu eta Euskal Gorrarek aurrera daraman jardunera baino ez daude bideratuta.

DONOSTIAKO ORDEZKARITZA

Larramendi k. 6, 1.D
20006 Donostia-San Sebastián

5. KANPO HARREMANAK ETA ORDEZKARITZA

2010. urtean zehar, Euskal Gorrak **erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean** aritu da. Horretaz gain, herri administrazioetako hainbat forotan ordezkari lanak bete ditu, Pertsona Gorren eskubideak defendatzeko eta euren bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

ERAKUNDEA

Bilbo eta Bizkaiko Pertsona Gorren Elkarteak (APSBB).
Basauriko Pertsona Gorren Elkarteak.
Durangaldeko Pertsona Gorren Elkarteak.
Arabako Gorrak (Arabako Pertsona Gorren Elkarteak).
Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteak.
Gaintitzen (Tolosaldeako Pertsona Gorren Elkarteak).

CNSE (Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioa).

HARREMAN MOTA

> Bazkidea.
> Baliabideak elkartrukatu.
> Egitasmoak elkarrekin kudeatu.

> Kidetza.
> Elkarlana Estatuko Pertsona Gorren elkartegintzan.
> Indar batasuna Estatuan.
> Egitasmoen elkar-kudeaketa.

ERAKUNDEA	HARREMAN MOTA
Espainiar Estatuko Gorren hainbat Elkarte eta Federazio .	> Informazio elkartrukea eta argibide-eskaerak.
Pertsona Gorren kolektiboarekin lotutako bestelako erakundeak.	> Informazio elkartrukea eta argibide-eskaerak.
EDEKA (Elbarrituen Ordezkarren Euskal Koordinatzailea).	> Kontseiluko kidea.
Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.	> Batzordeko kidea.
Eusko Jaurlaritza-Enplegu eta Gizarte Gaietako saila.	> Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko kidea.
Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila.	> ZHlen GMPZko praktiketako ikasleen prestakuntza zentroa.
UPV-EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea)	> Ikus-entzunezko Komunikazio Lizentziaturako praktiketako ikasleen prestakuntza zentroa.
SOS DEIAK	> ZHIZ Hitzarmena (Zeinu Hizkuntzako Interpreten Euskal Zerbitzua): larrialdietarako zerbitzu-eskaera sistema irigarriaren sormena.
Bizkaiko Foru Aldundia-Gizarte Ekintza.	> III Sektorearekiko Eztabaida Prozesuan parte-hartzea.
EcA Mahaia: Euskadiko enplegu lagundurako Foroa.	> Mahaikidea.
BOLUNTA (Bizkaiko Bolondresgo eta Elkarreentzako Agentzia).	> Prestakuntza eta boluntariotza ekintzak eta ekitaldiak antolatzeke elkarlana. > IGEentzako prestakuntza.
CAN-Nafarroako Aurrezki Kutxa.	> Ekitaldien antolakuntzarako elkarlana.


6. ZERBITZUAK ETA EGITASMOAK 2010 URTEAN ZEHAR

Euskal Gorra erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona gor guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkie, bere bi ordezkartzen eta elkarte-sarearen bitartez. Erakunde publiko zein pribatuen finantzaketari eta gure erakundeak berak lortutako diru-sarrerei esker, urtean batez beste, **4.000 eskaera** betetzen ditugu gure **zerbitzu egonkorretan**: Zeinu Hizkuntzako Interpretazio Zerbitzua eta Lan eta Prestakuntzarako Zerbitzua, besteak beste. Horretaz gain, **aldi-baterako** bestelako egitasmoen bidez, pertsona gor eta euren senideei edota entzumen ezgaitasunarekin lotutako informazioa, prestakuntza eta aholkularitza behar duten profesional nahiz erakundeei ere arreta ematen diegu.

ZEINU HIZKUNTZAKO INTERPRETE ETA PERTSONA GOR-ITSUEN GIDARI-INTERPRETE ZERBITZUA

Zerbitzu honen bitartez, Euskal Gorra pertsona gorrei zeinu hizkuntzako interpretea jartzen die, **izaera pertsonal duten hainbat eginbide** gauzatu ditzaten: mediku eta ospitaleko azterketak, lan eta lantokien bilaketa aktiboa, profesional ezberdinengana zuzendutako informazio-eskaerak, Justizia Epaitegieta eta Aholkularitza Juridikoetako eginbideak, izapideak eta bestelakoak. Horri esker, pertsona gorrek eta gor-itsuek era autonomoan eta inolako komunikazio oztoporik gabe euren eginbideak gauza ditzaten lortzen dugu. Aipatutako zerbitzu guztiak doakoak dira Pertsona Gorrentzat, baita horien finantzaketan laguntzen duten erakunde publiko nahiz pribatuentzat ere.

2010. urtean zehar, Euskal Gorra erakundeak **3.122** interpretazio zerbitzu kudeatu ditu Erkidegoko hiru lurraldeetan. Beheko grafikoan egindako zerbitzu guztien portzentajeak ageri dira eremuka sailkatuta:



Hurrengo tauletan lurralde bakoitzean gauzatutako zerbitzu kopuruak zehaztuta agertzen dira. Ikus daitekeenez, guztira 3.366 interpretazio zerbitzu eman ditugu. Hala ere, zerbitzuen eskaera kopurua, horiek betetzeko dauden profesionalen disponibilitatea baino handiagoa izan da. Ondorioz, 2010. urtean zehar 244 zerbitzu ukatu behar izan ditugu.

BIZKAIA				
HILA	BIZKAIA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATU-TAKOAK
URTARRILA	132	132	110	22
OTSAILA	147	147	130	17
MARTXOA	153	153	136	17
APIRILA	167	167	143	24
MAIATZA	162	162	157	5
EKAINA	164	164	155	9
UZTAILA	91	91	79	12
ABUZTUA	35	35	33	2
IRAILA	136	136	111	25
URRIA	110	110	86	24
AZAROA	61	61	43	18
ABENDUA	52	52	29	23
GUZTIRA	1.410	1.410	1.212	198

ARABA				
HILA	ARABA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATU-TAKOAK
URTARRILA	113	113	110	3
OTSAILA	164	164	164	0
MARTXOA	129	129	125	4
APIRILA	101	101	101	0
MAIATZA	110	110	108	2
EKAINA	114	114	113	1
UZTAILA	70	70	70	0
ABUZTUA	15	15	15	0
IRAILA	69	69	68	1
URRIA	85	85	83	2
AZAROA	88	88	86	2
ABENDUA	80	80	77	3
GUZTIRA	1.138	1.138	1.120	18


GIPUZKOA				
HILA	GIPUZK.	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATU-TAKOAK
URTARRILA	77	77	76	1
OTSAILA	85	85	83	2
MARTXOA	67	67	62	5
APIRILA	76	76	74	2
MAIATZA	87	87	85	2
EKAINA	45	45	45	0
UZTAILA	64	64	64	0
ABUZTUA	38	38	38	0
IRAILA	77	77	77	0
URRIA	75	75	65	10
AZAROA	82	82	80	2
ABENDUA	45	45	41	4
GUZTIRA	818	818	790	28

GUZTIRA						
HILA	BIZKAIA	GIPUZK.	ARABA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATU-TAKOAK
URTARRILA	113	77	113	332	296	26
OTSAILA	147	85	164	396	377	19
MARTXOA	153	67	129	349	323	26
APIRILA	167	76	101	344	318	26
MAIATZA	162	87	110	359	350	9
EKAINA	164	45	114	323	313	10
UZTAILA	91	64	70	225	213	12
ABUZTUA	35	38	15	88	86	2
IRAILA	136	77	69	282	256	26
URRIA	110	75	85	270	234	36
AZAROA	61	82	88	231	209	22
ABENDUA	52	45	80	177	147	30
GUZTIRA	1.410	818	1.138	3.366	3.122	244

ABIAN (LAN ETA PRESTAKUNTZARAKO AHOALKULARITZA ZERBITZUA)

Abian Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Pertsona Gorrentzako Lan Bitartekaritza Zerbitzuak koordinatzeaz arduratzen da. Horretaz gain, hiru lurraldeetarako **enplegu-sarea** kudeatzen du. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Lanbide eta Hobetuzen bitartez eskaintzen dituen Lanbide-Heziketa eta Hezkuntza Etengabeko **ikastaroen hedapenez** eta izen-emateaz arduratzen da. Horietan gainera, irisgarriak izan daitezten beharrezkoak diren baliabideak ere kudeatzen ditu, zeinu hizkuntzako interpreteak jarriz ala soinuak aplifikatzeko gailuak eskainiz.

Pertsona gorrei arreta emateaz gain, Abianek funtsezko lana betetzen du enpresa eta erakunde publikoetan: entzumen ezgaitasunaren gainean sentsibilizatzea eta aholkularitza ematea, **pertsona gorrak lan eremu normalizatuetan laneratu** daitezten lortzeko, alegia. Beheko grafikoan ikusten den bezala, 2010. urtean zehar, Euskal Gorrak **723 enplegu eta prestakuntza zerbitzu** eman dizkie. Guztira, 15 pertsona gor laneratu eta 25 prestakuntza ekintza gauzatu ditu.



LURRALDEKA (BIZKAIA ETA GIPUZKOA)

ZERB. KOPURUA		ERABILTZAILAK		ENPRESAK		ORIENTACION Y GESTION KUDEAKETA	
Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa	Bizkaia	Gipuzkoa
658	65	158	19	18	3	129	27
Erabiltzaile Kopurua		Gizonezkoak		Emakumezkoak			
158	19	96	13	62	6		
Zerbitzu mota		Lanekoa		Prestakuntza			
658	65	478	84	93	68		
Prestakuntza		Okupazionala		Etengabea			
9	1	4	3	1	2		
Enplegua		Laneratzea		Lan Hobekuntza			
12	1	11	1	1	0		

GUZTIRA

ZERB. KOPURUA	ERABILTZAILAK	ENPRESAK	BANAKAKOAK
723	177	21	156
Erabiltzaile kop.	Gizonezkoak	Emakumezkoak	
177	103	74	
Zerbitzu mota	Lanekoa	Prestakuntza	
	562	161	
Prestatutakoak	Okupazionala	Etengabea	
10	7	3	
Laneratutakoak	Laneratzea	Lan Hobekuntza	
13	12	1	

7. BESTELAKO ZERBITZUAK ETA EGITASMOAK

IZENBURUA

GORREN KOMUNITATEAREKIKO SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA HEZKUNTZA EREMUAN

Zertan datza?

Hitzaldiak, elkarrekin komunikatiboko tailerrak eta Gorren Komunitateari buruzko jarduerak (historia, perfilak, kultura, baliabide teknikoak,...).

Erabiltzaileak

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Prestakuntza Zikloetako zein Unibertsitateko ikasle gor eta entzuleak.

Esku-hartze eremua

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Finantzakideak

INEM (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa).

IZENBURUA

EUTSI: "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PERTSONA GORREN ELKARTEGINTZA SUSTATZEKO PROIEKTUA"

Zertan datza?

Aholkularitza, informazio eta prestakuntza zerbitzua, Euskal Gorrakeko kide diren elkarteak indarberritzeko eta autogestioa gauzatu dezaten bultzatzeko.

Erabiltzaileak

Kide diren elkarteetako Zuzendaritza Batzorkideak, bazkideak eta profesionalak.

Esku-hartze eremua

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Finantzakideak

Euskal Gorrak eta Eusko Jaurlaritza.

IZENBURUA EKITALDIAK

Zertan datza?	Euskal Gorrak erakundeak antolatutako ekitaldiak.	<ul style="list-style-type: none"> > Pertsona Gorren Elkartegintzaren Jardunaldiak. > Pertsona Gorren Munduko Eguna. > Emakume Gorren II Jardunaldiak. > I Seme-alaba entzuleak dituzten Familia Gorren II Jardunaldiak. > Boluntarioen I Jardunaldia.
Erabiltzaileak	Gorren Komunitateko kideak eta gizarte zerbitzuetako profesionalak.	
Esku-hartze eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa.	
Finantzakideak	Euskal Gorrak, Eusko Jaurlaritza eta bestelakoak.	

IZENBURUA PRESTAKUNTZA

Zertan datza?	Euskal Gorrak erakundeak antolatutako ikastaroak.	<ul style="list-style-type: none"> > Pertsona Gor-itsuekin komunikatzen ikasteko teknikak (I). > Pertsona Gor-itsuekin komunikatzen ikasteko teknikak (II). > Zeinu Hizkuntza Irakasteko Metodologia ikastaroa. > Zeinu Hizkuntza ikastaroak.
Erabiltzaileak	Gorren Komunitateko kideak, gizarte zerbitzuetako profesionalak eta Zeinu Hizkuntzako irakasleak.	
Esku-hartze eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa.	
Finantzakideak	Euskal Gorrak, Eusko Jaurlaritza eta bestelakoak.	

IZENBURUA ZEINU.TV (TELEBISTA ZEINU HIZKUNTZAN)

Zertan datza?	Zeinu Internet bidezko telebista da, pertsona gor zein gor-itsuentzat irisgarria. Webgunea honako hau da: www.zeinu.tv
Erabiltzaileak	Gorren Komunitatea orokorrean.
Esku-hartze eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa eta gizarte orokorrean (Interneteko edozein erabiltzaile sar daiteke).
Finantzakideak	BBK, Eusko Jaurlaritza eta EITB.



IZENBURUA BESTELAKO JARDUERAK

Zertan datza?	Euskal Gorrak gauzatzen dituen bestelako jarduera iraunkorrak.	<ul style="list-style-type: none"> > Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasun eta Hezkuntza Batzordeetan parte hartu. > CNSEren (Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioa) ordezkari organoetan parte hartu. > Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua (EJ). > Zentzumen Ezgaitasunaren Euskal Kontseilua (EJ). > EDEKA (Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea). > Signalia. S.L. (Irisgarritasun-zerbitzuak): Akzioduna.
Erabiltzaileak	Gorren Komunitateko erakunde nagusiak.	
Esku-hartze eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatua.	
Finantzakideak	Euskal Gorrak eta bestelakoak.	

8. GIZA BALIABIDEAK

2010.urtean zehar, jardunaldi osoan zein zatikako jardunaldian egondako langileak sexuaren arabera banatuta:

- > Gizonezkoak: **5**
- > Emakumezkoak: **17**
- > Guztira: **22**



9. EUSKAL GORRAK WEBEAN

2010. urtean zehar, Euskal Gorra erakundeko jarduerak **webean** txertatzeko ahalegin nabarmena egin dugu, ahalik eta pertsona kopuru handienarekin komunikatu ahal izateko. Horretaz gain, pertsona gorrentzako **eskuragarriak eta irisgarriak** diren baliabideak erabili ditugu. Gaur egun, honako hauek dira Euskal Gorrakek sarean ikusgai dituen webguneak:

- > www.euskal-gorrek.org
- > www.infoeg.org
- > www.zeinu.tv
- > www.emakumegorrenjardunaldiak.blogspot.com
- > www.familiagorrenjardunaldia.blogspot.com
- > www.pertsonagorrennazioartekoeguna.blogspot.com
- > www.zeinuhizkuntza.info



10. FINANTZAKETA

Euskal Gorrakek, urteko jarduerak, **erakunde publiko zein pribatuen diru-laguntzaen bitartez** zein ikus-entzunezko, aholkularitza eta prestakuntza **zerbitzuen salmentatik** lortutako diru-sarrereri esker gauzatu ahal izan ditu. Jarraian ageri den grafikoan, aipatutako diru-iturri bakoitzaren portzentajea zehaztuta dago.

